

# Z E S T O A

Hedadura: 43'5 Km2

Jaiak:

- Herrikoak: Irailaren 8an, Andra Mariaren Jaiokundea.
- Gurutzearen aurkikuntza: Maiatzaren 3an.
- Aizarna: Abuztuaren 15ean, Andra Mariaren Jasokundea.
- Arrona: Uztailaren 26an, Santa Ana.
- Bedua: Abuztuaren 10ean, San Lorenzo. Santuaren baselizan meza eta erromeria.
- Iraeta: Urtarrilaren 2lean, Santa Ines. Erromeria.

Biztanlegoa: 3.366 biztanle

- Lasao: Azaroaren 11an, Toursko San Martin. Erromeria.
- Akua: Ekainaren 24ean San Juan. Meza eta erromeria.
- Santa Engrazia baseliza: Uztailaren 25ean, Santiago. Erromeria.
- San Estebango azoka: Abenduaren 26an. Erromeria eta baserri kirolekin batera baserriko produktuak.
- Hileroko azoka: Hilabetearen azken ostegunean. Ganadu eta makineria azoka.

Zestoa Urolako ibarraren gune estrategiko batean lekutzen da, Azpeitia eta Zumaia artean. Ekialdean Aia du mugaide, mendebaldean Deba, hegoan Azpeitia eta ifarrean Zumaia.

1383an sortu Zen herria, Juan I. Gaztelako Erregeak Puebla-Karta eman zienean. Herria sortzeko ekimena Aizarnatarrena izan zen, muga arteko lurretan egoteagatik jasozten zituzten kalte handietaz kexu. Hiribilduari Zestoako Santa Krutz izena eman

zitzaion eta baita biztanlegoa erakartzeko hainbat **abantaila** ere, garai haietan Azkoitia-reek zituztenen oso antzekoak.


Hautatu Zen kokaguneak egokiera aproposak zituen habitaterako, hirigunetik gertu zabalduko karezko gailur batean dagoen Danbolingo koban (11-23) aurkitu diren bertakotze aztarnak azaltzen duten legez. Aztarnategia Eneolitiko eta Brontze Aroaren artean kokatu behar da.

1384ean sortu eta urtebetera erregeak udal barrutiak ezarri zituen. Ordura arte Aizarnak erabili zituen mendi, larre, ur eta soroak hartzen zituen eta honek hainbat sistrata eta istilu eragin zituen bi herrien artean. Aizarnak behin eta berriz udalerriko gunerik zaharrena izateagatik bere eskubideak baliarazi nahi izan zituen baina ezin izan zuen, herriak aurre gototik egin bait zion.

Zestoako Santa Krutz, herriska hauetan ohizko Zen hiri egituraketa jarraiki eraiki Zen, tajuketa nagusiari oraindik ere sendo eutsi zaiolarik. Hasieran egurrezkoak ziren etxeak harraultze itxurako esparru batean zenbait kaletan barna sakabanatzen ziren, hesi edo



Zubiaurreko zubia.





**San Joseko ataria.**

harresi batek zedarrizten zituela, Kale Nagusia heki-mendebalde bidea jarraiki eta hau biltzen dutela bi kale, muturretan bat egiten zutenak herriari almendra itxura emanaz. Sarrera-irterak harresian zabalduak lau ataritan zehar egiten ziren, lau haizetara norabidetuak. Herria Urolako Errege Bideak zeharkatzen zuen Beduako ibai-portu aldera, itsasoz merkatalgaiak ekarri ohi zituzten lekua. Merkatal bide garrantzitsu honez gain, hirigunea Aizarna Deba eta Zumaiarekin bat egiten zuten bestelako bideen elkar-gunea Zen.

Beduako portuak eragin zizkien merkataritza-abantailak, Somorrostroetik ekarritako meatza zerabilten burni-fabriketan gauzatu ziren. Erdi Aroz geroztik burdinolak herriko familiarik handienekin lotzen dira eta honek modu oneko bizimodua bideratu zien, ondare historiko bikaina utziaz. Handikien erakuntzen artean Lili oinetxe ikusgarriari, Irae-

ta, Lasao, Balzola etxeak e.a. batzen zaizkio. Harresiz inguratutik zegoen hiribildutik kanpo sakabanaturik lekutzen dira eta honi esker mantenu ahal izan dira gaur egun arte, 1549an gertatutako sute batek eta instante batean zabaldu zenak, harresi barrengo eremua kiskali bait zuen.

Segidan birreraiketa lanei ekin zitzaient eta suteetatik babestu ahal izateko harria hautatu Zen erakuntza gai gisara.

Hemendik aurrera eraikitako sailak garapen geldoa izan du eta ekintzarik aipagarriena herriko plaza egin izana da, garapen modernoaren lehen urratsak jorratzen hasi aurretik. Bigarren atal honetan, herriari horrenbesteko ospea ekarri dion baina etxeen gertakaria da aipagarriena. Urbero-urzu-loak XVIII. mendean aurkitu zituzten, arrakastarik handiena XIX. mende amaieran izan bazuten ere, eta batik bat Urolako trenbidea eraiki ondoan, mende honetako 20.eko hamarkadan. Garai hartan egin zitzaient propagandan urbero hauek Carlsbad, Kissingen, Mariembad eta Saint Nazaireko uren pareko eta hobetzat ere jo izan ziren eta Urrezko, Ohorezko eta Zilarrezko Domina ere eman zitzaient Paris, Niza, Burdeos, Amsterdam, Francfort eta Madrilgo Erakusketetan.

Urberoei lotutako ostatu industriaz gain, izan dira berriki aribide ekonomiko garrantzitsuak, Akuako ibarrean ikatz-mearen ustiapena esate baterako, Izarraitzko harri-naba-



**Jaiokundeko Andra Mariaren parroki-eliza.**



**Iraeta etxeke leihoa.**

rrena edota ur-zementuaren lanketa, ertaroan sortutako tradiziozko burnigintzaz gain.

## HIRIGUNE HISTORIKOA



Zestoako hirigunea sortu zenean hautatu **Zen** hiri-egituraketa berari eutsi dio.

Antzinako harresietatik bi atari bakarrik gorde dira: San Jose (\*6) eta Sortzez Garbiaren (\*7) atariak. Cesareo Diaz kalearen mutur **banatan** kokatzen dira.

Herriko Plaza erdian dago, arkitekturasail bikaina duela.

### ■ Jaiokundeko Andra Mariaren Parroki-Eliza (\*2)

Parroki-Eliza antzinako hiribilduaren kanpo aldeko hilada **batean** zutitzen da, eremu hau babesten zuelarik.

la herri osoa kiskali zuen 1549ko suteak eliza ere berregitera behartu zuen. **Hargintza-lan** ia guztia hondamendia gertatu bezain pronto egindako birreraiketa atalari dagokio, XVI. mendeko bigarren erdialdean. Gangak eta kontrahormak XVII. mendekoak



Portalekua jauregia.

dira eta dorrea berriz, are berantagoa, XVIII. mendeko lehenengo herenekoa.

XVII. mendean eta Gotzaiak hala aginduta, erdiko eta alboetako erretaulak jarriko dira. Multzoa oso da apala, orduko **eliz-ohiturak** jarraiki. Bertan Azpeitiko artessauak aritu ziren **lanean**.

Liliko kapera XVI. mende hasierakoa dela uste da eta kalte gabe gertatu **Zen** sutean.

### ■ Udaletxea (\*9)

Zestoako udaletxea XV. mende **amaie**raz geroztik lekutu da gune **berean**.

Oraingo eraikuntza XVIII. mende **hasie**rakoa da. Udaletxe **ore**ren egituraketari eusten dio, arkuteri, **balkoi** luze eta fatxadako armariarekin. Badu halere alde handi bat bestetatik bereizten duena, uztarturik arku gaineko harmaila bait du, "**zezentokiak**" (\*5). Eraikuntza hauek herriko plaza kantoi eginez ixten dute eta orainarokoak dira.

■ Plazan badira **hainbat** eraikuntza nagusi, **lraeta** etxea (\*4) eta Lizenziadokua (\*3) **esa**te baterako, XVI. mendeko hiri-jauregi bikain direnak.



Foru plaza.

Kale Okerren 5. zbk.a da aipagarria. Erdikalean Payonecua etxea (\*10), 6 zbk.duna, portada-arkua zertxobait **zorroz**tua duena eta Santa Krutz **kalean** Labekua baserria (\*1), bazter utzirik dagoena.

Azkoitiko Errege **Bidean** aurrera eginaz, herrirako sarrera **ondoan** XVI. mendekoa den Portalekua jauregia (\*12) lekutzen da. Aritxe Zaharra etxeari (\*8), fatxada txukunagoak eta ate dinteldunetakoari, beranduagoako arkitektura aldikoa dela antzematen zaio, XVIII-XIX. mendeetakoak. Barruti-gurutzeak (\*11) osatzen du hiriguneko monumentu ikusgarrien **saila**.

## UDALERRIA

### ■ Lili (10-42)

Zubiaurre zubian zehar (10-41) igarota **iristen** da Lili auzora; **zc;bi** hau, Juan I.ak ibai gainean eraikitzea agindu zuenaren **ondo**-rengotzat hartzen da. XVIII. mendekoa den Lau Tututako Iturri **parean** (10-41), bidea hautsi egiten da, ertaroko errepidearen bidea jarraiki. Etorrako sailerantz **doan** adarrak Azkoitirako bide zaharra markatzen du eta Lili zeharkatzen duen bideak berriz, **lrae**-taraino egiten du aurrera. Bide hau **bazter**re-**ra** utzi **Zen** Autoen Errege Bidea egin **zene**-an, XIX. mendean, egungo errepidearekin bat datorrena.

Lili Jauregiak eta Lilibe baserriak (10-42) Gipuzkoako historian gunerik **ospetsue**-netarikoa osatzen dute. Tradizioak kontatzen duenaren arabera jatorria VI. mendean du, **lruAeko** Gotzai **Zen** Liliola delako **bati** loturik.

Sinesgarriagoak dira Enrique Lili, Siracusa eta Valdemotoko Gobernariarekin edota Fray Francisco Lilirekin uztartzen dituzten kondairak, XV. mendekoak eta jauregi **hone**-takoak. Eraikuntza **gaine**ra, arkitektura aldetik aarai horretakoa da. Estiloz aotikoa, **Erre**-



Lili auregia.



**Endoia**ko baseliza.

nazimendura hurbiltzen duten ezaugarri batzu dituela. Izarraizko harlanduz egina, igarotako mende guztiak igaro direla ere, ertaroko usain freskoa hartzen zaio. Oinplanoa angeluzuzena da eta altuerak lurraren goi-beheei egokitzen zaizkie. Leiho bikoitz oso bitxiak ditu eta fatxadetan sakabanaturik beste elementu ojibal batzu ikus daitezke. Ertzetako zaigelak eta teilatuko xurrutarriak nabarmentzen dira.

Lilibea oinetxea Jauregi ondoan lekutzen da. Biak barne-bide batek uztartzen ditu. Tradizioz Lilibea Lili baino lehenagokoa dela esan ohi da, baina hau egiazta-tzea ez da batere erraza, lehenengoak baserri bihurtu arte jasan dituen berriztake-ta ugariak direla eta.

Lili multzoari aspaldidanik burdinola bat eta hainbat errota lotzen zaizkio. Zubiaurre zubi ondoan (10-41) XVIII. mendean eraikitako urak hartzeko presaren aztarnak ikus daitezke.

Lili multzoaz gain, eremu honetan bada bestelako toki jakingarririk. Baltuzola jauregia (10-43) esate baterako, XVIII. mendean Ignazio Balzola ontzi-tenienteak ber-raiki zuena.

### Endoia

Auzo honetako eraikuntzarik gehientsue-nak Debari dagokion lur barrutian zutitzen dira. Jasokundearen zaindaritzapeko baseliza (10-45), barruti-mugan lekutzen bada ere, Zestoari dagokio. Ez da eraiki zaharra eta herriko arkitektur-usadioaren ezaugarri garrantzitsuak mantentzen ditu.

Endoia auzopetik Sastarrin erreka igarotzen da eta inguruan Ekaingo Koba lekutzen da (10-38), Paleolitiko garaiko haitz-pintura ospetsuak direla eta oso ezaguna. Debako udal barrutian barne-harturik dago Ekain mendiaren parean zulatutako Erlaitzko koba (10-39). Historiaren, bi kultur atal ezberdinetan okupatua izan da: Goi Paleolitikoan



**Iraeta**ko "Granero" etxea.

lehenik eta Eneolitiko Brontze garaian gero-ra.

### Iraeta

XIV. mendez geroztik orubea agirietan jasoa azaltzen da.

Eremu honetan ibaian uzabal bat behar zuen, Iraeta Jn.ak bere dorretxetik kontrolpe-tzen zuena. Banderizoen gerratean esku hartu zuen Ahaide Nagusietariko bat izan Zen, gero erregearen zigorra jaso zuena.

Gerora, Jauntxoaren araubideari oraindik eutsi zitzaion esparru honetan, goren aldia igaroa bazuen ere. Garai batean burdinola hidraulikoa izan Zen inguru hauetako gune nagusi. Somorrostrotik ekarritako burniarekin lan egiten zuen fabrikak, gertu zegoen Beduako lonjan hustutzen zutelarik zama. Hementxe egiten Zen erresumako burdin-xafarik ospetsuena.


Erregimen Zaharreko krisiaren ondorioz burdinola, zentral hidrauliko eta zementu fabrika bihurtu Zen (\*14).

Iraganaldi jori hartatik ez da ia batere testigantzarik gorde. Jauregia bazter utzia eta erabat gainbehera etorria dago. Lorategitik zatitxo bat edo beste baizik ez dago. XVIII. mendekoak diren zubi eta bihitegiak eta XVII. mendekoa den Santa Ines (\*17) baselizak, nork bere erara hartu dio gaina denboraren joanari.

Baseliza 1620an eraiki Zen (\*17), San Juanen zaindaritzapean. Handik urte gutxitara, Iraeta Jaunaren Inks izeneko alaba hñ zelarik, izena aldatu zitzaion.

Bihitegi izenez ezagutu ohi Zen etxe ondoan (\*15), Iraeta ren maizter zeudenek





**Altzolaras jauregiaren aztarnak.**

elikagaiez **coerrenta**" ordaintzen zuten tokia irreferentzia eginez, elkarri itsatsiriko baserri saila lekutzen da. XVIII. mendekoa den sail hau Jauretxeko ekonomia-programaren atal da. Bertan bizi dira "**errenta**" bat ordaintzearen truke maiztergoaren lurra lantzen dituzten kolonoak. **Egoera** honek Iraetako **uzabala** gordetzea bideratu du, berezko baloreak oraindik harrigarriak gertatzen direlarik.

### ● **Altzolaras**

Altzolarasera bertaratzeko Txiribogako saila zeharkatu behar da Txiriboga (11-18) eta Bengoetxea (11-29) baserriek osatzen dutena. Altzolarasko auzoak iratetako sailak dituen **hainbat** alderdi berdin-berdin azaltzen ditu.

Sailari kemenik handien jauregiak eman dio (11-41), gaur egun sute baten ondorioz gainbehera dagoena. Honaxe bertaratu **Zen XV. mendean Oñatiko Jn.aren seme Zen Beltran Velez de Gebara Jn., Maria Beltran Iraetarekin** ezkondu zenean. Tokiaren izaera estrategikoa, Altzolaras zeharkatuaz Aizarna eta Aia bategiten zituen antzinako komunikabide batetik eratoritzen da. Bi burdinola izan ziren **gainera** inguruan, Goikola (11-43) eta **Bekola** (18-32). Lehenengoak andapara eta tailerren aztarna bikainak, eta baita gurpil baten ondaska **osoa** ere gordetzen ditu. Bekolak ur-zerrategi modura lan egiten du, antzinako burdinolaren azpiegiturari eutsiaz.

Ibarrak Iturriozko San Juaneraino egiten du aurrera (11-21). Jauregitik tarte motzera mendi-hegia estutu ahala, kobak bata bestearen atzetik azaltzen dira. Hauetariko asko Historiaurrean **beteta** egon ziren eta **arkeologi-aztarnategi** ugari dituzte, hala nola, **Amalda** (11-37), **Arbelaitz I** (11-39), **Arbelaitz II** (11-40), **Arbelaitz III** (11-38), **Aitze** (11-33), **Errailla** (18-6) e.a.

## ■ **ARRONA**

Biztanlegune hau joan **Zen** mendera arte Debako udal barrutiaren atal izan **Zen**. Oso baserri girokoa da eta jakingarritasunik handien duten monumentuak parroki-elizaren inguruan biltzen dira. Urolako ibai-arruari eta Iraetako bidexkari gaina hartuaz goigune batean lekutzen da.

Berriki eratutako industri-sektoreak **ibarra** hartzen du. Tradiziozko guneari Arrona Goikoa izena ematen **zaion** bitartean, **zabaldu** den gune modernoa berriz, Arrona edota Carmengo Auzoa izenez ezagutzen da.

### ■ **San Esteban Eliza (10-52)**

Egungo eraikuntza XVII. mendekoa da. Egitasmoa dezenteko ospea zuen Miguel de Abaria etxegile **beasairidarrak** burutu zuen. Oinplano angeluzuzenekoa da, **gurutzeriaz** ko gangak eta gurutzean kupula dituela.

Erretaula Nagusia Getariako eskulturgile batena da, **Domingo de la Torrerena** alegia. Auzoko plaza harlauztatua, Baltzola **jauregiak** (10-48), apaizetxeak (10-51), **Alpone** baserriak (10-46) eta Bokolo baserriak (10-49) ixten dute.

Zumaiarako errepide **ondoan** Carmengo auzoa kozkortzen da (10-37), industri-kutsu nabarmena duena. Litekeena da hementxe lekutu izatea Arronako antzinako burdinola. Nolanahi ere, 1900 aldera zementu **fabrikaren** eta Bilbo-Donostia trenbidearen **eraikuntzarekin**, auzoaren hedapenari ekiten zaio. Zestoako **udal** barruti **osoa** zehar zementu fabrikak horrenbeste ugalduta izana, **Ibañarrietako** kareharriak dituen ezaugarrien ondorio da, zementugintzarako oso egokia. Bitxia bada ere, Almadengo meatzetan **lanean** ziharduten ingeles meatzariek erakutsi **zieten** bertakoei ur-karea edo zementua egiten. Elkar ezagutze hau Iraetan gauzatu **Zen**, Ameriketako lurretara merkurioa eramateko ontzi bereziak egiten ziren burdinolan.

Auzo honetako beste tradiziozko industri bat, **Bombas** Azkue delakoa da. Jatorria, garraioetarako gurdigintzan dauka, gerora familako **asmakuntzak** gehitu zitzaizkiolarik. Asmakuntzarik handiena muztio eta **ardoetarako** bonbak dira, Diesel itsasuntzietarako aitzin-urrats izan zirenak.

### ■ **Ibafiarrieta**

Gune hau bidegurutze garrantzitsua izan da. Hementxe gurutzatzen dira Arrona eta Iraetara zihaoan Beduako bide zaharra Aizarnazabalera zihaoanarekin.

XVIII. mendetik aurrera egindako **errepide** birrantolaketak bide nagusietatik at utzi du antzin bidexka hau, nahiz eta Aizar-



**Arronaren ikuspegi orokorra.**



**San Lorentzo basiliza.**

nazabalerako bideari auzo-bidexka bidez etusi zaion.

Auzoxka honen gunerik interesgarrienak Etxeandia-Portuenea baserriak (10-44) beren atari eta arkuteriekin, Santo Kristoren basiliza (10-36), kanpotik begiratuta elementu jakingarririk ez izan arren barruan kristo ikusgarria duena, Zumaia gaineko ikuspegia eta inguruko mendiak dira.

#### ■ **Bedua**

Urola ibai ertzean, ugartetxo baten ondoan multzo interesgarria lekutzen da: lonja etxea (11-2), ontzitegia (11-1) eta bazter utzitako zementu fabrika (11-2).

Bedua etxeak, zenbait autoreren ustez 1000. urtez geroztik bertakotua, merkataritza-iharduera itzela burutu zuen XV. mendetik aurrera. Urolako ibai-arruan mearen sarreran eta burdinaren kanporaketan monopolioa zuen, zamaketa eta hustuketa lanen truke hainbateko bat kobratuaz. Aribide honek joan Zen mendearen amaiera arte iraun zuen. 1884ean Zumaiaiko itsas-adarra zeharkatzen zuela burdin-zubia eraiki zutenean amaitu egin Zen nolabaiteko gorpuzkerazuten ontziak Beduaraino igotzea.

XVI. mendetik aurrera oinetxeari, ontzitzaraz emaniko tailerrak lotzen zaizkio.

Zementu-fabrika ordezko diru-iturri gisara eraiki Zen. 1907an probintzian laugarren zegoen toneladakako ekoizpenean.

Beduan, San Lorentzo basiliza aurretik igaroaz Ibanarrieta, Arrona eta Iraetaraino zihonan bide bat abantatzen Zen. Honako hauxe Zen merkatalgaiak eramateko bidea, inoiz Arabako lurretaraino iritsi ohi zirenak.

Bidea galdu bada ere, honi uztarturiko testigantzarik gorde da, San Llorente edo San Lorentzo basiliza esate baterako (10-24). Bertan, XIV. mende aldera Zumaia eta Zestoa arteko udal barrutiei buruzko akordioa itundu Zen.



**Etxeandia Portuenea baserria.**



**IbaAarrietako Santo Kristoren basiliza.**

Baselizak portada arku zorrotzekoa du. Badu gainera, bestelako ezaugarri gotikorik, aldamen bateko fatxadan hirubulotako leihoa esaterako. Gaur egun bazter utzita dago.

#### ■ **Akua**

Akua auzoa ibar karstiko txiki 8aten gainean zutitzen da, gorago dagoen baten aitzinbide dena, eta Aizarnatarrek herriaren hedapena bideratzeko erabili ohi dutena.

San Juan Bataiatzailearen basiliza (11-25), XVIII. mendean zaharberritua, eta Ama Birjinaren Santutxua (11-24), egikera modernokoa, Aizarnara doan bidearen abiaburu dira. Bidean beste testigantza erlijioso batzu ere lekutzen dira, Armukoko Santutxua (11-26), edota Sortze Garbiaren basiliza (11-29).



**Zelaia baserria.**

Zelaia baserria, XVI. mendez geroztik agiritan jasoa dagoen oinetxea, eta Lopene (11-28) sarrera-atari bikaina duena, esparru honetako beste testigantza ikusgarri batzu dira.

#### ■ **AIZARNA**

Hirigunetik eta are ibarretik ere, urrutien dagoen auzoa. Egoera hauxe izan Zen bertako biztanleek 1383an Zestoako Santa



**Beduako lonja eta errenteria.**



**Aizarnako Jasokundeko Andra Mariaren parrokia-eliza.**

## HIRIGUNE HISTORIKOA



Aizarnak duen tajuketa bere saileko herriek dutenaz bes-telakoa da, ohizko ez den egituraketa duela. Erregelza-hiribilduek duten itxura hau oso da bitxia bestelako herrixketan.

Aizarnako hirigunea bi etxe hiladak osatzen dute, elkarren parean lekukurik eta plaza handi batek bereizten dituela. Mutur batean Parrokia zutitzen da, bestean Santo Kristoren gurutze-tokia ("30).

Zarautz, Errezil, Zestoa eta Aia aldera doan gurutzebide batek multzoa borobiltzen du.

### ■ Jasokundeko Andra Mariaren Parroki-Eliza (\*23)

Parroki-Eliza XVI. mendekoa da' eta herrialdeko fatxada platereskorik ikusgarri-nerarikoa du. Eliza honen lekuan aurrez sute batek kiskali zuen beste txikiago bat lekutu Zen.

Aldare Nagusia barrokoa da. Egako Granadako Duke-Dukesen kaperan, Iraeta etxeokak jatorriz, Kristoren bizitzaren eszenak agertzen dituen triptiko flamenko bat dago: Iragarkuntza, Jaiotza, Agerraldia, Erregeen Gurtza eta Erdainketa edo Zirkuntzisia, 1540ean Van Conixlook egindako

Krutz hiribildua sortzeko erabili zuten arrazoiatariko bat.

Bi guneen arteko elkarbizitza beti izan Zen nekeza protagonismo arazoak zirela tar-te, eta nolabait baldintzapetu egin du gune honen hiri-garapena.

Sarrera modernoa Iraeta Meagasekin uztartzen duen GI-317 errepidearen bidegurutzean hasten da. Badirudi XVIII. mendeko Errege Bidearen gainean egina dagoela.

Kilometro gutxiren buruan, Aizarna lekutzen den ibarreraino igotzen da eta bertatik Iraetako haranaren gaineko ikaragarritzko ikuspegia dago. Bidean gora egin ahala Lizasoeta Haundi (11-20) baserriaren ingurutik igarotzen da bidea gainbehera dagoen baserritzar ederra izan arren, oraindik ere handitasun itxura daukana; San Juan baseliza (11-21) eta Askatatzu baserri paretik ere (11-22) igarotzen da bidea. Baseliza apala eta neurritz txikia da. Egungo itxura XVIII. mendean egindako zaharberitze lanen ondorio da.



**Aizarnaren gaineko ikuspegi orokorra.**



**Aizarnako plaza.**

lana da. Van Conixloutarrak izen bereko herrikoak dira, Bruselastik gertuko tokia. Bruselasek ezezik, Amberes, Amsterdam, Mechelen eta Emiden'en ere lan egin zuten, XV. mende erditik XVI.aren erdialdera arte. aizarnako taula Juan II.aren edo Cornelis II.aren lana izan daiteke, biek ere Bruselasek ziharduten margolari lanetan triptikoa egin zenean.

Kapera honen parean Altzolaras-Gebara sendiaren hilobiko atalak gordetzen dira.

■ Santo Kristoren gurutze-tokian (\*30), plazaren beste muturrean taila gotikoa gurtzen da. Baseliza XVIII. mendean birreraiki Zen.

■ Etxebizitza saileko etxe guztiak hari berekoak dira. Bi solairutakoak, harlangaitza eta harlandua dutenak, elkarri erantsiak eta teila-tegalak kale aldera zituztenak osatzen dute oinarrizko eredua, hiriguneetako eraikuntzak egiteko modua jarraiki. Erretorekua (\*24), Xalamonene (\*31) eta Arretxe (\*32) -azken hau XVI. mendeko agiritan jaso- Santa Krutz kalean lekutzen dira. Jasokundearen kalean Alkatekua (\*26), Konpiterokua (\*27), Taberna Zaharra (\*28) eta Barberokua (\*29) daude lekuturik.

■ Pozuetako iturria (\*21) ere harrigarria da. XVIII. mendean eraiki Zen eta plazara egin-dako lehen ur-ekarketada.

■ Bestelako eraikuntza jakingarriak hirigune inguruan sakabanaturik lekutzen dira eta hona hemen aipatzea merezi duten batzuetan: Aranburu baserria (\*20), Urrutikoetxea (\*19), Zabale (\*33) iadanik XVI. mendean agiritan jasoak zeudenak, eta Benezi (\*25).

Akuarekin bat egiten zuen adokin-tolazko galtzadari (11-30) eutsi egin zaio Santa Krutz basiliza ondoan dagoen irteran (11-30). Bidean Apaitegi baserria dago (11-31); badirudi jatorriz dorretxea izan zela.

■ Hirigunetik eta bere ingurutik kanpo, hainbat baserriren izateaz gain badira lerro

hauetara ekartzea merezi duten zenbait basiliza, ibarrean dagoen biztanlegoari gain hartuaz gune estrategikoetan zutitzen direnak. San Pelaiokoa (11-36) ikaragarri xumea da, eta badirudi XVIII. mendean berritua izan zela. Santa Engrazi basiliza (17-68) zalantzarik gabe, bisitarik gehien egiten zaiona da, horretan kokaguneak eta tradizio historikoak laguntzen dutelarik.

Hirigunetik abantatzen den errepidea Aizpuru (11-35) eta EgaAa Goikoa (11-34) baserrien albotik -biak ere XVI. mendeko agiritan jasoak- eta sarreran arku zorrotza duen Listoritza (11-32) baserriaren ondok igarotzen da.

Baseliza muino baten goigunean zutitzen da eta bertatik bailararen ikuspegi zabala hartzen da. Eraikuntza apala da, auzolan sistema jarraitutako zeinahi eraikuntzari dagokion legez. Aurrez beste basiliza bat lekutu Zen bertan, tximista batek jo eta txikitu zuena; arku ojibalezko portada baizik ez Zen zutik geratu. Santa Engraziako Elkargoak egoitza zuen bertan, 1600.ean sortua, eta Aizarnako ia eliztar guztiaz bertakoak ziren.

Baseliza azpian Carmengo Ama Birjina- ren gurutze-tokia lekutzen da (17-69). Errepideak aurrera jarraitzen du Errezilgo udalerrian dagoen Erdoiztako San Isidro basiliza-raino, antzinako bidexka batean zehar, batera hondatu gabeko eta sekulako edertasuna duten paisaiak gurtzatuz.

## Lasao

Zestoako gune txiki hau Lasako burdinolako jauretxeari uztarturik sortzen da. Auzoxka honetako testigantzarik nabarmenenak, San Millango Markesaren Jauregia (11-66) eta San Martin Eliza (17-67) ditugu, burni fabrikaren aztarekin batera.

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundiak 1992. urtean argitaratutako  
GIPUZKOAKO GIDALIBURU HISTORIKO MONUMENTALA

